

**Nik, IÑIGO ROLDAN CATALAN jaunak, Oñatiko Udal idazkari naizen honek,**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 92. bis artikulua eta gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera

**Honako hau EGIAZTATZEN DUT:**

Idazkaritza honetan nire ardurapean dauden datuen arabera, **Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko abenduaren 22an**, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen, eta hitzez hitz transkribatuta dio:

**26.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako dirulaguntzen 2022 deialdiko “A” “B”, “C eta “D lerroetako zuriketa eskaerak onartzea.**

Alkate-udalburuaren 2022ko abenduaren 21eko proposamenak dio:

**Gaia:** Garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako dirulaguntzen 2022 deialdiko “A” “B”, “C eta “D lerroetako zuriketa eskaerak onartzea.

2022ko abenduaren 13n egindako Partaidetza eta Garapen Komunitarioko batzordearen aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamenak, Partaidetza eta Garapen Komunitarioko teknikariak, Onintza Andres Arancetak, bere aktan jasotzen duenez.

*“Garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako dirulaguntzen 2022 deialdiko “A” “B”, “C eta “D lerroetako zuriketa eskaerak onartzea*

*Garapenaren aldeko nazioarteko dirulaguntzen baitan “A”, “B” “C” eta “D” lerroetan jasotako zuriketa eskaerak aurkeztu du partaidetza teknikariak, dagozkien ebazpenak bideratzeko.*

*Oñatiko Udalak, 2022ko martxoaren 31n egindako bilkuran Udal Plenoak aho batez ondorengo akordioa onartu zuen: Oñatiko Udalak garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako emango dituen dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokor eta espezifikokoak (GAOn argitaratua 2022ko apirilaren 20an, 72.zk.).*

*Oñatiko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko apirilaren 7an egindako bileran, besteak beste, 2022 ekitaldiari dagokion deialdia egitea onartu zuen (GAOn argitaratua 2022ko apirilaren 27an, 78.zk.).*

*Hauek izan dira “A”, “B”, “C” eta “D” lerroetako ebazpenak:*

- Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko uztailaren 21ean, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen: “Garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako dirulaguntzen 2022 urteko deialdiko A eta B lerroetako onuradunen zerrenda onartzea, behin atzemandako akatsak zuzendu eta gero”.*
- Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko urriaren 13an, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen: Garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako dirulaguntzen 2022 urteko deialdiko “C” eta “D” lerroetako onuradunen zerrenda onartzea.*
- Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko urriaren 20an, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen: Garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako dirulaguntzen 2022 urteko deialdiko “D” lerroko onuradunen zerrenda onartzea.*

*Onuradunek agiri bidez egiaztatu behar dute dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla eta diruz lagundutako proiektuak benetan egin direla. “A” lerroko kontu zurigarria aurkezteko epea 2023ko martxoaren 31n amaitzen da. “B”, “C” eta “D” lerroetako kontu zurigarria aurkezteko epea 2022ko azaroaren 30a artekoa izan da.*

Epearen barruan hurrengo zuriketak aurkeztu dira “A” lerrerako (Hegoaldeko herrialde pobretuetan lankidetzazko proiektua estrategikoak garatzeko dirulaguntzak):

- 2022ko urriaren 28ko datuz, ASOCIACIÓN "HERMANSOLOÑA" (HERMANAMIENTOS SOLIDARIOS DE OÑATI - OÑATIKO ANAITZE SOLIDARIOAK elkarteak (G75004309 ) "Proyecto integral de ayuda a la Daira de Mahbes, en Tinduf (Argelia)" proiekturako (sarrera-erregistro zk.: 3707) zuriketa aurkeztu du. Eskatzaileak dirulaguntzaren ebazpenaren jakinarazpenean «zuriketarako gutxiengo zenbateko konputagarria » bezala adierazitako zenbateko osoa erabat zuritu du.
- 2022ko azaroak 7ko datuz, ASOCIACIÓN "HERMANSOLOÑA" (HERMANAMIENTOS SOLIDARIOS DE OÑATI - OÑATIKO ANAITZE SOLIDARIOAK elkarteak (G75004309 ) "Proyecto de mejoras y nuevos equipamientos en Predio Nazareth - Jose C Paz (Argentina)" proiekturako (sarrera-erregistro zk.: 3809) zuriketa aurkeztu du. Eskatzaileak dirulaguntzaren ebazpenaren jakinarazpenean «zuriketarako gutxiengo zenbateko konputagarria» bezala adierazitako zenbateko osoa erabat zuritu du.

Zuriketen balorazioa egin ostean, Partaidetza eta Garapen Komunitario Batzordeak ondorengo proposamena egiten du:

- “A lerroa: Hegoaldeko herrialde pobretuetan lankidetzazko proiektua estrategikoak garatzeko dirulaguntzak”-an zuritze tekniko zein ekonomikoak ontzat ematea, ondorengo kasuetarako:

ESKATZAILEA (IFZ)	LANKIDETZA-PROIEKTUA	ESKATUTAKO DIRULAGUNTZA (€)	ONARTUTAKO DIRULAGUNTZA (€)	ZURIKETARI DAGOKION ZENBATEKO KONPUTAGARRIA (€) *	LEHEN ZATIAREN ORDAINKETA, % 75ari dagokiona (€)	ZURITUTAKO ZENBATEKO A (€)	BIGARREN ZATIAREN ORDAINKETA, %25ri dagokiona (€)
ASOCIACIÓN "HERMANSOLOÑA" (HERMANAMIENTOS SOLIDARIOS DE OÑATI - OÑATIKO ANAITZE SOLIDARIOAK (G75004309 ) (3707 eta 4506 sarrera zk.)	Proyecto integral de ayuda a la Daira de Mahbes, en Tinduf (Argelia)	12.700,00 €	8.001,00 €	10.668,00 €	6.000,75 €	11.586,00 €	2.000,25 €
ASOCIACIÓN "HERMANSOLOÑA" (HERMANAMIENTOS SOLIDARIOS DE OÑATI - OÑATIKO ANAITZE SOLIDARIOAK (G75004309 ) (3809 sarrera zk.)	Proyecto de mejoras y nuevos equipamientos en Predio Nazareth - Jose C Paz (Argentina)	9.000,00 €	5.112,00 €	6.816,00 €	3.834,00 €	20.641,00 €	1.278,00 €
Aurkeztu ez den kasuetan, diruz lagundutako zenbatekoa osatzeko, transferentzia agiri osagarria edo dokumentu baliokidea aurkeztu beharko da udalaren bigarren ordainketa jaso eta hilabeteko epean. Baita atzerriko kontraparteak funtsak jaso dituela egiaztatzen duen dokumentazioa ere.							

Honekin batera, oinarrietan ezarritakoari jarraituz, jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela. Hau horrela, dirulaguntzen bigarren ordainketa honela bideratzea proposatzen du Partaidetza eta Garapen Komunitarioko Batzorde Informatiboak:

- Onarpenarekin batera onartutako dirulaguntzaren gainontzekoa (bigarren ordainketa) emango zaio eskatzaileari.
- Zuriketarekin batera aurkeztu ez den kasuetan, diruz lagundutako zenbatekoa osatzeko, transferentzia agiri osagarria edo dokumentu baliokidea aurkeztu beharko da udalaren bigarren ordainketa jaso eta hilabeteko epean. Baita atzerriko kontraparteak funtsak jaso dituela egiaztatzen duen dokumentazioa ere

Epearen barruan hurrengo zuriketak aurkeztu dira “B” lerrorako (Hegoaldeko herrialde pobretuetan lankidetzako ekintza edo ekimen puntualetarako dirulaguntzak):

- 2022ko urriaren 31ko dataz, ASOCIACIÓN "HERMANSOLOÑA" (HERMANAMIENTOS SOLIDARIOS DE OÑATI - OÑATIKO ANAITZE SOLIDARIOAK elkarteak (G75004309 ) “Gestión mercancía y acción social a través de taller de Costura del Centro Vasco Toki Eder en la comunidad de Jose C Paz y municipios colindantes (Argentina)” ekimenerako (sarrera-erregistro zk.: 3731) zuriketa aurkeztu du.
- 2022ko urriaren 31ko dataz, ASOCIACIÓN "HERMANSOLOÑA" (HERMANAMIENTOS SOLIDARIOS DE OÑATI - OÑATIKO ANAITZE SOLIDARIOAK elkarteak (G75004309 ) “Construcción de ventanas para el Taller A.PRO.DI de carpintería-artesanía en Jose C Paz (Argentina)” ekimenerako (sarrera-erregistro zk.: 3742) zuriketa aurkeztu du.
- 2022ko azaroak 11ko dataz, ASOCIACIÓN "HERMANSOLOÑA" (HERMANAMIENTOS SOLIDARIOS DE OÑATI - OÑATIKO ANAITZE SOLIDARIOAK elkarteak (G75004309 ) “Equipamientos para biblioteca móvil y taller de música para Guadería Belen Jose C Paz (Argentina)” ekimenerako (sarrera-erregistro zk.: 3870) zuriketa aurkeztu du.
- 2022ko azaroak 21eko dataz, ASOCIACIÓN "HERMANSOLOÑA" (HERMANAMIENTOS SOLIDARIOS DE OÑATI - OÑATIKO ANAITZE SOLIDARIOAK elkarteak (G75004309 ) “Ayuda a dinamizadoras de los centros clave de la Red Solidaria "CONTYGO" en Jose C Paz (Argentina)” ekimenerako (sarrera-erregistro zk.: 3998) zuriketa aurkeztu du.
- 2022ko azaroak 29eko dataz, HORACIO ARGARATE SARASQUETAK, SAN MIGUEL GOIINGERUA PARROKIAREN izenean (R2000295B) “Fundación Renal del Hospital P.Bellini y Dispensario de la Esperilla en Santo Domingo (República Dominicana)” eta Educación de calidad y alimentación adecuada en la Loma de la Manigua-Pedernales (República Dominicana)” ekimenterako (sarrera-erregistro zk.: 4171) zuriketak aurkeztu ditu.

Zuriketen balorazioa egin ostean, Partaidetza eta Garapen Komunitario Batzordeak ondorengo proposamena egiten du:

- “B lerroa: Hegoaldeko herrialde pobretuetan lankidetzako ekintza edo ekimen puntualetarako dirulaguntzak”-an zuritze tekniko zein ekonomikoak ontzat ematea, ondorengo kasuetarako:

ESKATZAILEA (IFZ)	LANKIDETZA-PROIEKTUA	ESKATUTAKO DIRULAGUNTZA (€)	ONARTUTAKO DIRULAGUNTZA (€)	ZURIKETARI DAGOKION ZENBATEKO KONPUTAGARRIA (€) *	ORDAINKETA BAKAR AIRRERATUA (€)	ZURITUTAKO ZENBATEKOA (€)
ASOCIACIÓN "HERMANSOLOÑA" (HERMANAMIENTOS SOLIDARIOS DE OÑATI - OÑATIKO ANAITZE SOLIDARIOAK	Gestión mercancía y acción social a través de taller de Costura del Centro Vasco Toki Eder en la comunidad de	4.000,00 €	4.000,00 €	5.333,33 €	4.000,00 €	8.170,00 €

(G75004309 ) (3731 sarrera zk.)	Jose C Paz y municipios colindantes (Argentina)					
ASOCIACIÓN "HERMANSOLOÑA" (HERMANAMIENTOS SOLIDARIOS DE OÑATI - OÑATIKO ANAITZE SOLIDARIOAK (G75004309 ) (3742 sarrera zk.)	Construcción de ventanas para el Taller A.PRO.DI de carpintería- artesanía en Jose C Paz (Argentina)	1.948,00 €	1.461,00 €	1.948,00 €	1.461,00 €	2.008,12 €
ASOCIACIÓN "HERMANSOLOÑA" (HERMANAMIENTOS SOLIDARIOS DE OÑATI - OÑATIKO ANAITZE SOLIDARIOAK (G75004309 ) (3870 sarrera zk.)	Equipamientos para biblioteca móvil y taller de música para Guardería Belen Jose C Paz (Argentina)	1.716,00 €	1.716,00 €	2.288,00 €	1.716,00 €	3.249,60 €
ASOCIACIÓN "HERMANSOLOÑA" (HERMANAMIENTOS SOLIDARIOS DE OÑATI - OÑATIKO ANAITZE SOLIDARIOAK (G75004309 ) (3998 sarrera zk.)	Ayuda a dinamizadoras de los centros clave de la Red Solidaria "CONTYGO" en Jose C Paz (Argentina)	4.600,00 €	4.600,00 €	6.133,33 €	4.600,00 €	6.149,00 €
SAN MIGUEL GOIINGERUA PARROKIAREN izenean (R2000295B) (4171sarrera zk.)	Fundación Renal del Hospital P.Billini y Dispensario de la Esperilla en Santo Domingo (República Dominicana)	7.500,00 €	7.125,00 €	9.500,00 €	7.125,00 €	9.574,30 €
SAN MIGUEL GOIINGERUA PARROKIAREN izenean (R2000295B) (4171sarrera zk.)	Educación de calidad y alimentación adecuada en la Loma de la Manigua- Pedernales (República	3.300,00 €	3.300,00 €	4.400,00 €	3.300,00 €	4.609,15 €

	Dominicana)					
--	-------------	--	--	--	--	--

Epearen barruan hurrengo zuriketak aurkeztu dira “C” lerroako (Oñatiko udalerrian ber tan eraldaketa sozialerako heziketa eta sentsibilizazio jardueratarako dirulaguntzak):

- 2022ko azaroaren 9ko dataz, HOTZ OÑATI ERREFUXIATUEN GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO ELKARTEAK (G75193607) “Mundu mailan dauden migrazio mugimenduak eta gatazka egoeran dauden herrialdetako errefuxiatu mugimenduen inguruko sentsibilizazio proiektuak” jarduerarako (sarrera-erregistro zk.:3829) zuriketa aurkeztu du.
- 2022ko azaroaren 30eko dataz, EREI ELKARTASUNERAKO ELKARTEAK (G06846984) “Mugak eta pertsona migratzaileak, lehenengo pertsonan egindako erakusketa baten bitartez” jarduerarako (sarrera-erregistro zk.: 4188) zuriketa aurkeztu du.

Zuriketen balorazioa egin ostean, Partaidetza eta Garapen Komunitario Batzordeak ondorengo proposamena egiten du:

- 1) “C lerroa: Oñatiko udalerrian ber tan eraldaketa sozialerako heziketa eta sentsibilizazio jardueratarako dirulaguntzak”-an zuritze tekniko zein ekonomikoak ontzat ematea, ondorengo kasuetarako:

ESKATZAILEA (IFZ)	LANKIDETZA-PROIEKTUA	ESKATUTAKO DIRULAGUNTZA (€)	ONARTUTAKO DIRULAGUNTZA (€)	ZURIKETARI DAGOKION ZENBATEKO KONPUTAGARRIA (€) *	ORDAINKETA BAKAR AIRRERATUA (€)	ZURITUTAKO ZENBATEKOA (€)
HOTZ OÑATI ERREFUXIATUEN GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO ELKARTEA (G75193607) (3829 sarrera zk.)	Mundu mailan dauden migrazio mugimenduak eta gatazka egoeran dauden herrialdetako errefuxiatu mugimenduen inguruko sentsibilizazio proiektuak	3.000,00 €	1.155,00 €	1.540,00 €	1.155,00 €	3.944,74 €
EREI ELKARTASUNERAKO ELKARTEA (G06846984) (4188 sarrera zk.)	Mugak eta pertsona migratzaileak, lehenengo pertsonan egindako erakusketa baten bitartez	1.500,00 €	1.155,00 €	1.540,00 €	1.155,00 €	1.310,23

2) “C” lerroako EREI ELKARTASUNERAKO ELKARTEAK (G06846984) “Mugak eta pertsona migratzaileak, lehenengo pertsonan egindako erakusketa baten bitartez” jarduerarako (sarrera-erregistro zk.:4087) eskatzaileak

ez du dirulaguntzaren ebazpenaren jakinarazpenean «zuriketarako gutxiengo zenbateko konputagarria » bezala adierazitako zenbateko osoa erabat zuritu. Egindako likidazioa aurreratutako kopurua baino txikiagoa denez, zuritutako kopuruaren arabera bir-kalkulatu da proposatu da dirulaguntza, modu proportzionalen.

Eskatutako dirulaguntza	1.500,00 €
Emandako dirulaguntza (ordainketa aurreratua)	1.155,00 €
Zuriketarako gutxiengo zenbateko konputagarria	1.540,00 €
Aurkeztutako zuriketa	1.310,23 €
Itzultzeko zenbatekoa:	172,33 €

Hau horrela, dirulaguntzen jasotako zenbatekoaren aurrerapenaren itzulketa modu proportzionalen bideratzea proposatzen du Partaidetza eta Garapen Komunitarioko Batzorde Informatiboak:

- Onarpenarekin batera jasotako dirulaguntzaren aurrerapenaren itzulketa proportzionala egin beharko du eskatzaileak, 172,33€, Udalaren kontu korrante honetan: ES45.2095.5057.43.10.60024766
- Ez da berandutze-interesik ordaindu beharko.
- Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko dirusarreratzat hartuko dira.

Epearen barruan hurrengo zuriketak aurkeztu dira “D” lerrorako (larrialdiko laguntzarako eta ekintza humanitarioko proiektuak finantzatzeko dirulaguntzak):

- 2022ko azaroaren 18ko dataz, HOTZ OÑATI ERREFUXIATUEN GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO ELKARTEAK (G75193607) “Arreta eta laguntza humanitaria Greziako errefuxiatuentzat” jarduerarako (sarrera-erregistro zk.:3984) zuriketa aurkeztu du. 2022ko abenduaren 19ko dataz informazio osagarria aurkeztu du (sarrera-erregistro zk.:4506).
- 2022ko azaroaren 25eko dataz, HOTZ OÑATI ERREFUXIATUEN GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO ELKARTEAK (G75193607) “Aita Mari ontziari laguntza ematea Mediterraneoan jendea erreskatatzeko” jarduerarako (sarrera-erregistro zk.:4105) zuriketa aurkeztu du.

Zuriketen balorazioa egin ostean, Partaidetza eta Garapen Komunitario Batzordeak ondorengo proposamena egiten du:

- D lerroa: larrialdiko laguntzarako eta ekintza humanitarioko proiektuak finantzatzeko dirulaguntzak:

ESKATZAILEA (IFZ)	LANKIDETZA-PROIEKTUA	ESKATUTAKO DIRULAGUNTZA (€)	ONARTUTAKO DIRULAGUNTZA (€)	ZURIKETARI DAGOKION ZENBATEKO KONPUTAGARRIA (€) *	ORDAINKETA BAKAR AIRRERATUA (€)	ZURITUTAKO ZENBATEKOA (€)
HOTZ OÑATI ERREFUXIATUEN GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO ELKARTEA (G75193607)	Arreta eta laguntza humanitaria Greziako errefuxiatuentzat	4.000,00 €	4.000,00 €	5.333,33 €	4.000,00 €	5.760,47 €

(3984 eta 4506 sarrera zk.)							
HOTZ OÑATI ERREFUXIATUEN GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO ELKARTEA (G75193607) (4105 sarrera zk.)	Aita Mari ontziari laguntza ematea Mediterraneoan jendea erreskatatzeko	4.000,00 €	4.000,00 €	5.333,33 €	4.000,00 €	5.889,70 €	

Hau guztia, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak ezarritakoa kontuan hartuta.

**38/2003. Legean nabarmentzekoak dira artikulua hauek:**

**30.2 artikulua:** “Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitaezko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitortzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagiriak edo diru-laguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira.”

**34.3 artikulua:** “Onuradunak diru-laguntzaren xede den jarduera, proiektua, helburua edo portaera gauzatu izana justifikatu ondoren ordainduko da diru-laguntza, diru-laguntza arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera.

*Justifikaziorik ez badago edo lege honen 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen bada, diru-laguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galduko da.”*

Halaber, 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena, bere 3. Artikuluan 1 eta 2 ataletan honakoa xedatzen du:

*“1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.*

*2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratortzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”*

Jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Partaidetza eta Garapen Komunitarioko sailak kudeatzen dituen garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako dirulaguntzen kontura emango diren dirulaguntzen 2022ko oinarriak eta deialdiak, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ziren 2022ko apirilaren 20an (72. Zk.) eta apirilaren 27an (78. Zk.; BDNS (Identif.): 621047)) argitaratu ziren, hurrenez hurren.

Azaldutakoagatik, Partaidetza eta Garapen Komunitarioko Batzordearen onetsiarekin, Tokiko Gobernu Batzarrari honako hau proposatzen diot:

**Lehenengoa.-** Partaidetza eta Garapen Komunitarioko Batzordeak “A” lerrorako (Hegoaldeko herrialde pobretuetan lankidetzara proiektua estrategikoak garatzeko dirulaguntzak) buruz egindako proposamenean zerrendatutako elkarteei dirulaguntzaren zuriketa onartzea, bigarren ordainketak bideratzea, goian aipatutako xehetasunekin.

**Bigarrena.-** Partaidetza eta Garapen Komunitarioko Batzordeak B” lerrorako (Hegoaldeko herrialde pobretuetan lankidetzako ekintza edo ekimen puntaletarako dirulaguntzak) buruz egindako proposamenean zerrendatutako elkarteei dirulaguntzaren zuriketa onartzea.

**Hirugarrena.-** Partaidetza eta Garapen Komunitarioko Batzordeak “C” lerrorako (Hegoaldeko herrialde pobretuetan lankidetzako ekintza edo ekimen puntaletarako dirulaguntzak) buruz egindako proposamenari jarraiki HOTZ OÑATI ERREFUXIATUEN GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO ELKARTEAaren dirulaguntzaren zuriketa onartzea.

**Laugarrena.-** Partaidetza eta Garapen Komunitarioko Batzordeak "C" lerrorako (Hegoaldeko herrialde pobretuetan lankidetzako ekintza edo ekimen puntualetarako dirulaguntzak) buruz egindako proposamenari jarraiki EREI ELKARTASUNERAKO ELKARTEAaren dirulaguntzaren zuriketa onartzea eta itzulerara prozedura bideratzea, goian aipatutako xehetasunekin.

**Bosgarrena.-** Partaidetza eta Garapen Komunitarioko Batzordeak "D" lerrorako (Larrialdiko laguntzarako eta ekintza humanitarioko proiektuak finantzatzeko dirulaguntzak) buruz egindako proposamenean zerrendatutako elkarteei dirulaguntzaren zuriketa onartzea.

**Seigarrena.-** Ebazpen hau laburtua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea. Argitalpen honek banakako jakinarazpena ordezkatzeko du; eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik. Interesdunek Oñatiko Udalaren webgunean (<https://www.xn--oati-gqa.eus/eu>) kontsultatu ahalko dute ebazpenaren eduki osoa.

**Zazpigarrena.-** Dirulaguntza hauen onuradunak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea.

**Zortzigarrena.-** Erabaki hau kontu-hartzaileari, diruzainari eta partaidetza teknikariari jakinaraztea.

---  
Gaia aztertuta eta kontuhartzailearen ondorengo aldeko oniritziaren baldintzapean (32/2018 Foru Dekretuaren 2.3, 7.1 a eta 13 artikuluekin bat etorriz) Tokiko Gobernu Batzarrak aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez.

Ziurtagiri hau dagokion akta onartu baino lehen ematen da, eta ohartarazita geratzen da, 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 206 artikulua arabera.

**Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut sinadura digitalean ageri den datan.**

**Alkatearen O.I.**

**IDAZKARIA**

Izaro Elorza Arregui

Iñigo Roldan Catalan

